

Bilera birtuala, Nagusiak Bizkaia, Agijupens Gipuzkoa, Las Cuatro Torres Araba eta Eusko Ferderpen elkarteen eta EUSKADIKO ALDERDI POLITIKOEN artean

5 minutu Agurtzea. Gure aldetik, bertaratuak:

- Nagusiak Bizkaiaiko preidente **Roberto Martínez**, **Maite Zabala** eta Mikel Agirregabiriarekin batera.
- Agijupens Gipuzkoako presidente **Joxe Agustín Arrieta**, Félix Elkoroiribe eta **beste emakume batekin** batera.
- Las Cuatro Torres Arabako presidente **Félix Ortiz de Zárate**, eta **beste EMAKUME BAT**.
- Eusko Ferderpeneko **presidenteorde Jaime Zubia**, Santiago Larburu eta Karmele Peñagaricanorekin batera (idazkaria).

Euskal Autonomi Erkidegoko Adinekoen ordezkari garen aldetik, **eskerrak eman nahi dizkizuegu bideokonferentzia bidezko BILERA HAU ESKAINTZEAGATIK.**

EUSKO-FEDERPENek EAEko hiru lurralde historikoetako pentsiodun eta erretiratuen elkarteak biltzen ditu: Nagusiak Bizkaian, Agijupens Gipuzkoan eta Las Cuatro Torres Araban. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian dauden **245** zentro sozialen laguntza eta **123.000** bazkide baino gehiagoren kuotak jasotzen ditugu, eta **horrek Euskadiko mugimendu asoziatibo handiena egiten gaitu.**

Topaketa honen helburua bikoitza da:

- Eskubideen subjektu aktibo eta gure gizartearen eta gure garaiko protagonista garen aldetik, gure proposamenak zein diren jakinaraztea –hori ekainaren 5eko gutunean egin genuen jadanik- eta, batez ere...
- Uztailaren 12ko Hauteskunde Autonomikoei begira, **Eusko Legebiltzarrean erreferentziazko alderdi politikoa zareten aldetik, zuen asmoak zein diren entzun eta jasotzea.**

5 minutu Elkarrizketatutako Alderdi Politikotik bertaratu direnen aurkezpena

40 minutu **GALDETEGIA**

Zortzi galdera, erantzun bakoitzeko 5' gutxi gorabehera. Lehenengo bostek OMEk Zahartze Aktiboa nola definitzen duen hartzen dute gaitzat.

1. **Nola zainduko duzue Adineko Pertsonen Osasuna (fisikoa eta mentala)?** Zein politika sortuko dituzue prebentzio mailan, lehen mailako eta ospitaletako artatzean eta menpekotasun garaietarako? Zein giza baliabide eta zein baliabide ekonomiko erabiliko dira? Gaur egunekoei dagokienez, zein politika hobetuko dira? **Zein da zuen jarrera gai**

hauei buruz? Heriotza duina, adinekoei eragindako tratu txarrak, adinkeria, adin handiko helduen infantilizazioa...?

2. Zuen ustez garrantzitsua al da adinekook modu aktiboan parte hartzea guri dagozkigun politikei buruzko erabakietan? Nola egingo zenukete? Ziurtatuko al duzue eragile berri erabakigarri gisa gizartean dugun parte-hartze hazkorra? Horretarako, gure zerbitzu zorroa zabaltzeko daukagun borondate sendo eta solidarioa eskaintzen dizuegu (gero hitz egingo dugu boluntariotzaz); izan ere, horren bidez bakardade, txirotasun, tratu txar, iriste-erraztasun eta beste hainbat arazo larriri aurre egiteko asmoa dugu.

3. **Segurtasuna. Nola bermatzen da Adinekoen Eskubideen Defentsa (pentsioak beste atal batean doaz) gizarteratze hobetu eta oso baterako? Adinekoen Egoitzetan zaintza indartua, Eusko Jurlaritzako Gizarte Gaietako Goi Ikuskaritzaren aldetik? Egoiliar bakoitzeko artatze langileen eta mediku-zaintzarako Ratioak hobetzea? Egongo al da Adinekoen Egoitzen alternatiba izan daitezkeen formula berrientzako –CoHousing eta beste batzuk- lege eta finantzazko laguntzarik?**

4. **Bizitza osoko ikaskuntza. Nola sustatzen da elkarrengandik ikastea, Adinekoek dakarten kapital soziala herritar guztien onerako izan dadin?** Benetako eta bidezko *Silver Economy* bat nahi dugu; ez dugu bezerokeria hutsean erori nahi, balio sozial eta ekonomiko altuko eskaintza hazkor baten preskriptore izan nahi dugu.

5. **Belaunaldi artekotasuna. Nola egiten duzue apustu etorkizuneko gizarte berrikuntzarako gakoa izan daitekeen belaunaldi artekotasuna balioetsi eta aitortzen duen gizarte baten alde?** Eraikiko al dugu errealitate berri solidarioagoa, bidezkoagoa, konektatuagoa eta jasangarriagoa?

6. **Baliotsua irizten al diozue gizarte sektore anitz eta kritikoetan adinekoen BOLUNTARIOTZA zabala hobetu eta koordinatzeko Erakundeek laguntza emateari?**

7. **Nola ziurtatzen duzue pensio publikoen etorkizuna eta erosteko ahalmena (Estatuan eragin dezakezen neurrian)?** Orain, Gizarte Segurantza EAEn kudeatuko den honetan: Kontuan hartuko al gaituzue belaunaldi guztien eskubideak bermatuko dituen zerga sistema progresibo eta justu baten alde lan egiteko? **Pentsioak Konstituzionalki Blindatzearen eta, beranduago izan gabe, Toledoko Ituna berritzearen** aldekoak al zarete?

8. **Euskadin benetako Adinekoen Kontseilu bat sortzearen aldekoak zarete? Atal guztietan adinekoek osatutakoa, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren edo Adinekoen Estatuko Kontseiluaren antzera...** Araudiaren aldaketa ororen aurretik, **nahitaezko irizpenak igortzeko gaitasunak ere badituena, ez-lotesleak badira ere. Zure alderdian ba al dago Adinekoen Batzorde edo azpi-batzorderik? Adinekoen Sailburuordetza baten alde edo, areago esanda, Zahartze Aktiborako Idazkaritza Nagusi baten alde zaudete?**

9.

5 minutu Agurra eta berriro ere eskertzea. Zuen zain gaude botoa ematera animatzeko eta boto unibertsala bermatzeko.

5 minutu Elkarrizketatutako Alderdi Politikoaren amaierako hitzak.